

## Telebistaren beharra

Deia, 1977-09-01.

Telebista, komunikabide berri eta osoena dugu.

Gütemberg-ek inprimatzeko modu berriak XVgn gizaldian asmatu zituenean, gizonarentzat harrigarritzko ikas eta kulturabide bat ireki zion; harrezkero, inprimategia moldez asko joan da aldatzen, eta honen eraginak neurri-ezinekoak dira.

Onerako eta txarrerako.

Geroztik sortuak izan diren irratia eta zinemak ere egin dituzte bideak, berebizikoak.

Onerako eta txarrerako.

Azken izan den asmakuntzarik handiena, telebista izan da.

Onerako eta txarrerako.

Ba dakigu komunikabide guzi hoiek bere aldeak dituztela, gizonak sortu dituen gauza guzietan bezala. Baina ezin da inolatan ere gizonak elkar komunikatzeko bide bezala sortu diren aurrerapenak, berez txarrerako ere egokiak izan ditezkelako aitzakiarekin, osorik debekatzea eskatu.

Orduan, ez genuke gizonak lehen asmatutako haiztoa ere onartu beharko ogia ebakitzeke bezain ongi balio baitu gizon bat hiltzeko ere.

Egin behar dena da, haiztoa erabiltzen duen gizona ondo hezi.

Telebista, hartuko genuke guk gure bat!

Onerako eta txarrerako.

Ematen digutena ez da gurea: ez hizkuntzaz, ez herritasunez, ez kultura mailaz, ezta dibersio bezala ere. Eta hala ere, ez gara ingelesek osatu duten talde batek eskatu duena eskatzera iritsi: telebista osorik debekatzea eskatu dute.

Txarra delako.

Sekretari bat eta guzti duen talde serio hau iaz eratu zen Londres-en, eta telebistaren aurkako lan asko egin eta gero, orain BBC-ko atera jo du: taldearen asmoak zuzenak direla erakusteko, *telebista-saio bat egin nahi dute*.

Ona delako.

Honek esan nahi du, telebista, beste gauza asko bezala, behar dela, ongarri izan ditezkelako.

Eta ongarri honen behar gorrian gara euskaldunak.

Eta euskaldun egin nahi ditugunak.

Euskerak ez du behar duen mailarik lortuko, telebista mailara iristen ez den bitartean; ez dugu osorik euskeraz izango, baina irakaskintza mailan euskerak bide hontaz hartuko luken laguntza erabatekoa izango litzake.

Honelakoa telebista behar dugu, guk: gurea eta ona.